

Zk-1005

28/2001 DEKRETUA, otsailaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegietako(IIHII)lanpostu-zerrenda onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen II. tituluko I. kapituluak —irakaskuntzako funtzio publikoari buruzkoak— ezartzen ditu lanpostu-zerrendetan zehaztu behar diren baldintzak, bai eta zerrenda egiteko bete beharreko irizpideak eta jarraitu beharreko prozedurak ere.

Zentzu horretan, lege horren 5. artikuluan daude jasota lanpostu-zerrendek izan behar dituzten gutxiengo zehaztasunak, eta honako hauek dira: lanpostuaren izaña; Irakaskuntzari Laguntzeko Zerbitzua; lanpostua betetzeko beharrezkoak diren baldintzak, eta horien artean, nahitaez, izendatutako hizkuntza eskakizuna, eta hala badagokio, derrigortasun data ere jasoko dira; lanpostu bakoitzari zein talde, kidego edo maila edo lanarloko kategoria dagokion; eta, azkenik, funtzionarioentzat gordetako lanpostuak badira, lanpostuari dagokion berariazko osagarria eta lanpostua betetzeko sistema ere adieraziko dira.

Bestalde, Lege horretako 4. artikuluko 1) idatz-zatiak dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak duela irakasleen lanpostu-zerrenda proposatzeko ahalmena; aitzitik, lanpostuak onartzeko eskumena Jaurlarritzak du, hala agintzen baitu Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 5. artikuluko h) idatz-zatiak.

Lanpostu-zerrenda hau egiteko eta bertako lanpostuei hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezartzeko, otsailaren 13ko 25/2001 Dekretuan (2001eko otsailaren 20ko EHAA, 36 zk.) Ikerketarako eta Irakaskuntzaren Laguntza Zerbitzuetarako lanpostuetarako ezarritako irizpideak erabili dira.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, eta Jaurlarritzaren Kontseiluak 2001eko otsailaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartuta, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Onartzea Dekretu honetako I. eranskinak jasotzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegietako(IIHII) lanpostu-zerrenda. Lanpostu horiek irakasle funtzionarioentzat gordeta daude.

Nº-1005

DECRETO 28/2001, de 13 de febrero, por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo de los Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.(CEIDA).

La Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de enseñanza no universitaria de la CAPV, regula en el capítulo I de su título II, dedicado a la estructura y organización de la función pública docente, las condiciones que deben determinarse en las relaciones de puestos de trabajo, señalando con respecto a ella los principios básicos así como los cauces procedimentales que deben observarse en su elaboración.

De esta forma, el artículo 5 del citado texto legal dispone el contenido mínimo que en cualquier caso deben contener las citadas relaciones: denominación, servicio de Apoyo a la docencia, los requisitos exigidos para su desempeño, entre los que necesariamente debe figurar el perfil lingüístico asignado y la fecha de preceptividad; la adscripción al grupo, cuerpo o escala o categoría laboral que en cada caso corresponda; y por último, tratándose de puestos reservados a funcionarios, el complemento específico y el sistema de provisión.

Por su parte, la letra l) del artículo 4, en congruencia con la letra h) del artículo 5 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de Función Pública Vasca que reconoce la competencia para la aprobación de las relaciones de puestos de trabajo al gobierno, reserva la facultad de propuesta de las relaciones de puestos de trabajo docentes al Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

En la elaboración de la presente relación de puestos de trabajo se han seguido los criterios establecidos por el Decreto .../2000, de ... de (BOPV de .. de) para la determinación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad de los Servicios de Investigación y Apoyo a la Docencia.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación previa deliberación del consejo de Gobierno en sesión celebrada el 13 de febrero de 2001.

DISPONGO:

Artículo único.— Se aprueba la relación de puestos de trabajo de Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CEIDA) que figura en el anexo I de este Decreto reservados a funcionarios docentes

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lebenengoa.— Lanpostu horiek betetzeko, merezimendu lehiaketa erabiliko da. Lehiaketarako deialdia hezkuntza administrazioak egingo du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 33. artikuluak agintzen duen bezala egingo du.

Bigarrena.— Lanpostu hauek eskuratzent dituzten funtzionarioek jatorrizko kidegoari dagozkion destino osagarria eta berariazko osagarria bere horretan mantentzeaz gain, honako zenbateko hauek era jasoko dituzte:

- a) Zuzendaria: 58.000 PTA hilean.
- b) Aholkularia: 50.712 PTA hilean.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko otsailaren 13an.

Lehendakaria,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— El sistema de provisión de estos puestos de trabajo será por concurso de méritos convocado por la administración educativa en las condiciones que se establecen en la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria, en su artículo 33.

Segunda.— Los funcionarios que accedan a estos puestos de trabajo mantendrán el complemento de destino correspondiente a su cuerpo de docencia. Mantendrán así mismo el complemento específico correspondiente a dicho Cuerpo incrementándose, además, las siguientes cantidades en concepto de retribución por el cargo.

- a) Director/a: 58.000 PTA mensuales.
- b) Asesores/as: 50.712 PTA mensuales.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz a 13 de febrero de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.
El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

ARABAKO IIHII Egoitza: Vitoria-Gasteiz
Kodea: 010320

PLAZA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	TITULAZIOA	ESPERIENTZIA	TALDEA
ZUZENDARIA	2 beteta	Goi mailakoa	Bigarren Hezkuntzan: 3 urte	A/B
AHOLKULARIA	2 beteta		Haur edo Lehen Hezkuntzan: 3 urte	B

GIPUZKOAKO IIHII Egoitzak: Donostia eta Legazpi
Kodea: 013004

PLAZA	HERRIA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	TITULAZIOA	ESPERIENTZIA	TALDEA
ZUZENDARIA	Donostia	2 beteta	Gizarte arloko lizentziatura	Zuzendaritza edo antzekoetan: 3 urte	A/B
AHOLKULARIA	Donostia	2 beteta	Zientzia eta teknologia arloko lizentziatura	Zientzia eta teknologia eremuan: 3 urte	A/B
AHOLKULARIA	Legazpi	2 beteta	Goi mailakoa	Bigarren Hezkuntzan: 3 urte	A
AHOLKULARIA	Legazpi	2 beteta		Haur edo Lehen Hezkuntzan: 3 urte	B

BIZKAIAko IIHII Egoitzak: Bilbo eta Gernika
Kodea: 014948

PLAZA	HERRIA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	TITULAZIOA	ESPERIENTZIA	TALDEA
ZUZENDARIA	Bilbo	2 beteta	Goi mailakoa	Zuzendaritza edo antzekoetan: 3 urte	A/B
AHOLKULARIA	Bilbo	2 beteta	Gizarte arloko lizentziatura	Bigarren Hezkuntzan: 3 urte	A
AHOLKULARIA	Bilbo	2 beteta		Lehen Hezkuntza	B
AHOLKULARIA	Bilbo	2 beteta		Haur Hezkuntzan	B
AHOLKULARIA	Bilbo	2 beteta	Zientzia eta teknologia arloko lizentziatura	Bigarren Hezkuntzan edo Lanbide Heziketan zientzia eta teknologia eremuan	A
AHOLKULARIA	Gernika	2 beteta	Zientzia eta teknologia arloko lizentziatura	Bigarren Hezkuntzan: 3 urte	A/B

CEIDA ARABA: Sede Vitoria-Gasteiz
Código:010320

PLAZA	PERFIL LINGÜÍSTICO	TITULACIÓN	EXPERIENCIA	GRUPO
DIRECTOR/A	2 vencido	superior	En Educación secundaria: 3 años	A/B
ASESOR/A	2 vencido		En Educación Infantil o Primaria: 3 años	B

CEIDA GIPUZKOA: Sedes: Donostia y Legazpia
Código:013004

PLAZA	LOCALIDAD	PERFIL LINGÜÍSTICO	TITULACIÓN	EXPERIENCIA	GRUPO
DIRECTOR/A	Donostia	2 vencido	Licenciatura en el ámbito de las Ciencias Sociales	En funciones directivas o similares: 3 años	A/B
ASESOR/A	Donostia	2 vencido	Licenciatura en el ámbito científico-tecnológico	En el ámbito científico-tecnológico: 3 años	A/B
ASESOR/A	Legazpia	2 vencido	Superior	En educación secundaria: 3 años	A
ASESOR/A	Legazpia	2 vencido		En Educación Infantil o Primaria: 3 años	B

*CEIDA BIZKAIA: Sedes Bilbao y Gernika
Código:014948*

PLAZA	LOCALIDAD	PERFIL LINGÜÍSTICO	TITULACIÓN	EXPERIENCIA	GRUPO
DIRECTOR/A	Bilbao	2 vencido	superior	<i>En funciones directivas o similares: 3 años</i>	A/B
ASESOR/A	Bilbao	2 vencido	<i>Licenciatura en el ámbito de las Ciencias Sociales</i>	<i>En Educación Secundaria: 3 años</i>	A
ASESOR/A	Bilbao	2 vencido		<i>En Educación Primaria</i>	B
ASESOR/A	Bilbao	2 vencido		<i>En Educación Infantil</i>	B
ASESOR/A	Bilbao	2 vencido	<i>Licenciatura en el ámbito científico-tecnológico</i>	<i>En el ámbito tecnológico o científico en Secundaria o en Formación Profesional</i>	A
ASESOR/A	Gernika	2 vencido	<i>Licenciatura en el ámbito científico-tecnológico</i>	<i>En Educación Secundaria: 3 años</i>	A/B

Zk-1006

EBAZPENA, 2001eko otsailaren 7koa, Hezkuntza sailburuordearena, 2000-2001 ikasturteko IRALE programaren lehenengo hiruhilabetean irakastordu barneko ikastaroak egiteko onartuak izan ziren irakasleen ordezkotzagatik ikastetxe pribatuentzako edo gizarte-ekimenezkoentzako diru-laguntzak ebaazten dituen 2000ko azaroaren 15eko Ebazpena aldatzen duena.

2000ko azaroaren 15eko Ebazpenak, 2000-2001 ikasturteko IRALE programaren lehenengo hiruhilabetean irakastordu barneko ikastaroak egiteko onartuak izan ziren irakasleen ordezkotzagatik ikastetxe pribatuentzako edo gizarte-ekimenezkoentzako diru-laguntzak ebaazten ebazpena argitaratu zuen.

Ebazpenean, irakasleen izen-zerrenda eta ikastetxe bakoitzak ordezkotza horretarako jasoko dituen dirukopuruak agertzen ziren eranskinean, hala ez dagokien ikasketari batzuen izenak argitara eman ziren. Eta aitzitik, zerrendan agertu behar zuten beste batzuenak ez ziren argitaratu.

Horregatik guztiagatik, honako hau

Nº-1006

RESOLUCIÓN de 7 de febrero de 2001, del Viceconsejero de Educación, por la que se modifica la Resolución de 15 de noviembre de 2000, por la que se conceden ayudas a centros privados o de iniciativa social en concepto de sustitución de aquellos profesores que fueron admitidos a realizar cursillos dentro del horario lectivo en el Programa IRALE durante el primer trimestre del curso 2000-2001.

La Resolución de 15 de noviembre de 2000, del Viceconsejero de Educación, hizo pública la concesión de ayudas a centros privados o de iniciativa social en concepto de sustitución de aquellos profesores que fueron admitidos a realizar cursillos impartidos dentro del horario lectivo en el Programa IRALE durante el primer trimestre del curso 2000-2001.

Dicha Resolución incluyó los nombres de algunos cursillistas a los que no correspondía, en el anexo en que se aprobaba la relación de profesores liberados, así como la cuantía a percibir en su virtud por los centros. Por otro lado, omitió los nombres de otros cursillistas a los que sí correspondía aparecer.

Por todo ello